

**DECRETO N° 1071**  
(P003109)

**ACUERDO:**

Udalbatzak, bi mila eta bederatziko apirilaren hogeita bederatzian, eginiko bilkuran, besteren artean, honako akordioa hartu zuen, A.F.A.ren 206 artikulua salbuespenarekin:

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día veintinueve de abril de dos mil nueve, adoptó, con la salvedad del Art. 206 del R.O.F., entre otros, el siguiente acuerdo:

**“Gaitzat harturik 2008PLES0005 espedientea, 6.1.06: CURTIDORES eremuan Hiri Antolamenduaren Aldaketa Bereziari buruzkoa.**

**“En relación con el expediente nº 2008PLES0005 relativo a la Modificación del Especial de Ordenación Urbana en el ámbito 6.1.06 CURTIDORES.**

**Egitateak:**

**Resultando los siguientes hechos:**

-Alkatetzaren 2008ko urriaren 9ko Ebazpenaren bidez, erabaki zen hasieran onestea, baldintza batzuen pean, eta jendaurrean ikusgai jartzea 6.1.06 CURTIDORES eremuan Hiri Antolamendurako Plan Berezia, Laurobia SL enpresak sustatua.

-Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 9 de octubre de 2008, se acordó aprobar inicialmente con sujeción a una serie de condiciones y someter a información pública el Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 6.1.06 CURTIDORES, 15 promovido Laurobia SL.

Espedientea, Proiektuarekin batera, jendaurrean ikusgai egon zen, iragarkiak argitaratuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 203, zenbakian, 2008ko urriaren 28koan, eta Diario Vascon 2008ko urriaren 28an, eta ez da alegaziorik aurkeztu.

El expediente junto con el Proyecto fue sometido a información pública mediante publicación de anuncios en el B.O de Guipúzcoa nº 203 de fecha 22 de octubre de 2008 y Diario Vasco de fecha 28 de octubre de 2008, no habiéndose presentado alegaciones.

-Plan Bereziaren xedea da “Marcos Enea” partzelaren kalifikazio xehatua aldatzea eta lerrokadurak eta sestrak ezartzea.

-El Plan Especial tiene por objeto modificar la calificación pormenorizada de la parcela “Marcos Enea” así como establecer las alineaciones y rasantes.

Plan Nagusiak honako kalifikazioak jasotzen ditu aipatutako partzela horretarako:

El Plan General recoge las siguientes calificaciones para la citada la parcela:

-RP-6 Partzelako bizitegia, 6. gradukoa.

-RP-6 Residencial en Parcela de grado 6.

-LJ Gune Libreak lorategiak.

-LJ Espacios Libres jardines.

Plan Bereziarekin, guneak LJ kalifikazioa izaten jarraitzen du, eta gainerakoa aldatu egiten da, bi kalifikazio berri hauekin:

Con el Plan Especial se mantiene la calificación de la zona LJ y se modifica el resto con estas dos nuevas calificaciones:

-RB.- Blokeko bizitegia.

-RB.- Residencial en Bloque.

-RK. Bizitegi Gune Librea pribatua, sestra-beheko aprobetxamendua duela.

-Beste dokumentu bat aurkeztu da, behin betiko onesteko, eta hartan, hasieran onesteko erabakian ezarritako baldintzak betetzen dira, espedientean jasota bezalaxe.

Era berean, Dokumentua zuzendu egin da, partzelaren eraikigarritasunak Plan Nagusiak bizitegi gisa kalifikatutako partzelaren azalerarako soilik ezarritako aprobetxamenduaren indizeari erantzuten dion aldetik.

#### **Argudioak:**

-Ordenantza aldatzea planteatzen da, RB kalifikazioa partzelaren eta hurbileko ingurunearen eraikitze-aukerekin koherenteago den aldetik.

Egungo RP\_6 kalifikazioarekin, ezin ziren zenbait parametro bete (*mugak atzeratzeko baldintza eta eraikinen arteko tartea*). Hala ere, hirigintzako irizpide gisa antolamendua ondoko eraikinekiko batzea denez gero, kalifikazio berria ezartzea aukeratu da.

-Hirigintzaren eta Lurzoruaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, 58.1 artikuluan adierazten du plangintza nagusian berezko diren hierarkia-maila izango dutela egitura-izaerako hirigintzako antolamenduaren zehaztapenek. Plan nagusian jasotako gainerako zehaztapenek antolamendu xehatuaren maila izango dute.

Lege bereko 70. artikulua ezartzen du plan bereziak erabili ahal izango direla plan nagusiko dokumentazioan jasotako hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua aldatzeko.

-Aldatzen diren parametroak antolamendu xehatukoak direla ulertzen da, eta beraz, alda daitezke Plan Berezi honen bitartez.

-RK.-Residencial Espacio Libre privado con aprovechamiento bajo rasante.

-Se ha presentado un nuevo documento para la aprobación definitiva en el que se cumplimentan las condiciones establecidas en el acuerdo de aprobación inicial, tal y como consta en el expediente.

Asimismo se ha rectificado el Documento en cuanto a que la edificabilidad de la parcela responde al índice de aprovechamiento establecido por el Plan General referido exclusivamente a la superficie de parcela calificada como residencial.

#### **Considerando los siguientes argumentos:**

-El cambio de la ordenanza se plantea por cuanto la calificación RB resulta más coherente con las posibilidades edificatorias de la parcela y de su entorno próximo, de manera que se propone una alineación acorde con las edificaciones vecinas que tienen la calificación RB.

Con la calificación actual RP\_6 no se podían cumplir ciertos parámetros (*condición de retiros a linderos así como la separación entre edificaciones*). Como quiera que se establece como criterio urbanístico unificar la ordenación con respecto a las edificaciones contiguas, se opta por establecer una nueva calificación.

-La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en el artículo 58.1 señala que las determinaciones de la ordenación urbanística de carácter estructural tendrán el rango jerárquico propio del planeamiento general. El resto de las determinaciones contenidas en el plan general tendrá el rango de la ordenación pormenorizada.

El artículo 70 de la misma ley determina que los planes especiales podrán utilizarse para modificar la ordenación pormenorizada del suelo urbano contenida en la documentación del plan general.

-De los parámetros que se modifican se entienden que son de ordenación pormenorizada por lo que cabe su modificación a través del presente Plan Especial.

-El artículo 97 de la Ley establece que los planes

-Legearen 97. artikulua ezartzen du plan partzialerako ezarritakoaren arabera formulatu, tramitatu eta onetsiko direla plan bereziak. Eta hiri antolamenduko plan bereziek ez dutela behar ingurumen- inpaktuaren ebaluazio bateratuaren txostenik.

Informazio publikoaren epea amaitu ondoren, bidezkoa da behin betiko onestea, zeren, 95. artikuluan xedatutakoaren arabera, 3.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan, udalaren bigarren onespenez behin betiko onespenez izaera izango baitu.

-Hiri Garapena, Etxebizitza, Obrak eta Ingurumeneko Batzordeak 2009ko apirilaren 20ko bileran aztertu zuen espedientea.

**Eta espedientean jasotako dokumentazioa ikusirik**

**Udalbatzari:**

**1.- Behin betiko onestea 6.1.06 CURTIDORES eremuko HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIA.**

**2.- Aurreko akordioan aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, argitaratu aurretik Hirigintzako Plangintzaren Administrazio Erregistroan gordailutzeko.**

*Plana indarrean jartzeko, eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikuluan aurreikusten diren ondorioak izan ditzan, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da behin betiko onetsitako erabakiaren eta hirigintzako arauen eduki osoa, adieraziz aipatutako hirigintzako erregistro horretan gordailutu dela plan hori.*

*Behin betiko onesteko erabakia, gainera, dagokion lurralde historikoko egunkari hedatuene(t)an argitaratuko da.*

**3.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Honen aurka,**

especiales se formularan, tramitarán y aprobarán de acuerdo con lo establecido al efecto para los planes parciales. Y que los planes especiales de ordenación urbana no requieren informe de evaluación conjunta de impacto ambiental.

Habiendo transcurrido el plazo de información pública, procede otorgar la aprobación definitiva ya que según lo dispuesto en el artículo 95, en el caso de municipios con población superior a 3.000 habitantes, la segunda aprobación municipal tendrá el carácter de aprobación definitiva.

-Examinado el expediente en la sesión de la Comisión de Desarrollo Urbano, Vivienda, Obras y Medio Ambiente de fecha 20 de abril de 2009.

**Y a la vista de la documentación obrante en el expediente**

**El Pleno de la Corporación acuerda:**

***1º.-Aprobar definitivamente el PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA en el ámbito 6.1.06 CURTIDORES.***

***2º.- Remitir el Plan Especial a que se refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación.***

*A los efectos de la entrada en vigor del plan y para la producción de los efectos previstos en el artículo 88 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, se publicará en el boletín oficial del territorio histórico el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del correspondiente plan urbanístico en el citado registro.*

*El acuerdo de aprobación definitiva se publicará además en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico correspondiente.*

***3º.-El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-***

*aukeran, berraztertzeo errekurtsua jar daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino lehen, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo bestela, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietako Salan zuzenean inpugnatu dezakezu, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, egoki irizten den beste edozein aurkeztetik at”.*

**DEKRETUA:** Aurreko erabakian agindutako guztia beteko zaie interesatuei.

Hiri honetako Udal Txit Goreneko Alkate-Lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, Irunen bi mila eta bederatziko maitzaren 5(e)an.

ALKATEA/EL ALCALDE,

**DILIJENTZIA:** Data honetan betetzen da agindutakoa, ziurtatzen dut.

*administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro recurso que considere pertinente”.*

**DECRETO:** Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Lo manda y firma el Señor Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de Irun, a 5 de mayo de dos mil nueve, certifico.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO,

**DILIGENCIA.-** Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico